

## Asebetetze galdetegiak HH, LH eta BHn

Azken hiru hilabeteotan bizi izandako egoera berezi honek hainbat egokitzapen, aldaketa eta ikuspegi-hausnarketa egitera behartu gaitu. Familiek ere lan eta esfortzu ikaragarriak egin behar izan dituzte. Oraingoan maila pedagogikoan egindakoak baloratu eta are bereziagoa izan daitekeen datorren ikasturtearen diseinuan beste laguntza bat izan dezagun, galdetegi sorta bat prestatu dugu **HH**, **LH** eta **BH**rako (DBH eta Batxilergoa). Galdetegi elebidunak bertan dituzue: **HH**, **LH** eta **BH**n.



## Agur saioak: arrakasta itzela!


Ikasturteari amaiera goxo, hurbila eta aldi berean segurtasunezkoa eman nahian antolatu eta burututako agur saioak erabat arrakastatsuak izan dira bai HHn baita LHn ere.



## Azken Zurriolako Ataria

Bestela ere, komunikazio aldetik ikasturte xelebrea izan dugun hau amaitutzat ematen dugu "Ataria-tik". Informazio puntualak edota ikastalde konkretu bati bidera daitezkeenak gutunen bitartez zabalduko dira. Beraz, 105. alearekin adio esaten dizuegu iraila arte.

Ahal den neurrian eta ahal duzuen moduan, hortaz, **gozatu udareekin!**



## OHARRAK / AGENDA:

- **HH**: Lanzadera galdetegia. Epe berria: uztailak 5.
- **DBH1**: Liburu salmentan laguntza behar da. [Oharra](#).

